


Cocomm F700 telefonoaren gida azkarra



- | | |
|--|--|
| 1. LCD pantaila | 20. [*] Izartxoaren tekla |
| 2. [P] Pizteko/Itzaltzeko tekla | 21. [#] Tiraol-tekla |
| 3. Entzungailua/Hargailua | 22. [M1...M4] Markatze bizkorreko teklak |
| 4. [-] Ezkerreko hautaketa-tekla | 23. [V] Bolumen-tekla |
| 5. [-] Eskuineko hautaketa-tekla | 24. [U] Atxikitzeko tekla |
| 6. Norabide-botoia eta baieztatzea | 25. [T] Transferentzia-tekla |
| 7. [G] Deitzeko tekla | 26. [M] Multikonferentzia-tekla |
| 8. [R] Deia amaitzeko tekla/ Menu nagusira itzultzekoa | 27. [R] Berriz deitzeko tekla |
| 9. Teklatu alfanumerikoa | 28. [M] Isilik moduaren tekla |
| | 29. [E] Esku libreko tekla |

Aplikazio-menua

Gailua piztu eta konfigurazio-prozesua amaitutakoan, menu nagusia pantailan agertuko da. Sakatu ezkerreko hautaketa-tekla aplikazioen menura sartzeko eta erabiltzaile-interfaze hau bistaratuko da pantailan.







- | | |
|------------------|--------------------|
| 1. Kontaktuak | 7. PC Suite |
| 2. Mezuak | 8. Erlojua |
| 3. Historia | 9. Galeria |
| 4. Kalkulagailua | 10. Telefonoa |
| 5. FM irratia | 11. Ezarpenak |
| 6. Musika | 12. SIM zerbitzuak |

Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: <https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonos-fija>




Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590

Cocomm F700 telefonoaren gida azkarra


Dei bat transferitzea

1. Dei bat sartzean, hartu entzungailua edo sakatu [] tekla deiari erantzuteko.
2. Sakatu [] tekla sarrerako deia eteteko eta beste telefono-zenbaki batera edo agendako beste kontaktu batera bigarren dei bat egiteko, edo sakatu **Opciones** eta aukeratu **Añadir llamada** menuan.
3. Bigarren deia aktibatuta dagoenean, sakatu [] tekla sarrerako deia bigarren kontaktuari transferitzeko, edo sakatu [] tekla bigarren deia aktibo egon baino lehen "galdetu gabe" transferentzia egiteko.

Hiruko dei bat egitea

1. Dei bat sartzean, hartu entzungailua edo sakatu [] tekla deiari erantzuteko.
2. Sakatu [] tekla sarrerako deia eteteko eta beste telefono-zenbaki batera edo agendako beste kontaktu batera bigarren dei bat egiteko.
3. Bigarren deia aktibatuta dagoenean, sakatu [] tekla, edo sakatu **Opciones** eta aukeratu **Llamada a tres**, multikonferentzia abiarazteko.
4. Prozedura hori errepikatuta, gehienez bost parte-hartzaile gehitu ditzakezu.

Markaketa bizkorra erabiliz dei bat egitea


1. Itxaroteko moduan, sakatu memoriako tekla bat [**M1-M4**], edo luze sakatu zenbakizko teklatuko tekla bat [**1...9**] markaketa bizkorra erabiltzeko. Deia automatikoki hasiko da.
2. Deia amaitzeko, sakatu [] tekla edo eseki entzungailua.

Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

1. Sartu aplikazioen menura, hautatu  ikonoa eta sakatu [**OK**] kontaktuen menura sartzeko.

2. Sakatu **Opciones** eta aukeratu **Importar/Exportar** bistarutzen den menuan.
3. Hautatu nondik kopiatu nahi dituzun kontaktuak (SIM txartela, telefonoa, barne-memoria...).
4. Hautatu zer helbidetan kopiatu nahi dituzun kontaktuak.
5. Hautatu kopiatu nahi dituzun kontaktuak, edo sakatu **Opciones** eta, ondoren, **Seleccionar todo**, datu-jatorriko kontaktu guztiak hautatzeko, eta **Aceptar**, eragiketa amaitzeko.

Bluetooth® gailu batera konektatzea

1. Hautatu  konoa aplikazioen menuan, eta sakatu [**OK**] sistemaren ezarpen-menura sartzeko. Erabili [**▲**] [**▼**] norabide-teklak **Bluetooth** hautatzeko, eta sakatu [...] Bluetooth funtzioa aktibatzeko.
2. Sakatu [**OK**] terminalaren izenaren gainean, gailuaren aldi bateko ikusgaitasuna aktibatzeko, eta egin gauza bera hari lotu nahi diozun beste gailuan.
3. Sakatu [**OK**] **Buscar dispositivos** aukeraren gainean; terminalaren irismen-erradioan ikusgai dauden Bluetooth gailu guztiak agertuko dira pantailan.
4. Sakatu [**OK**] zure terminalari gehitu nahi diozun gailuaren gainean, eta sartu eskatutako kodea bi gailuetako leiho gainerakorretan. Konfigurazioa amaitutakoan, sakatu **Opciones** lotutako gailuaren izena aldatzeko eta audio-ezarpenak egiteko.

Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoenean,  ikonoa jakinarazpen-barran agertuko da. Aurrez lotutako gailuren bat terminalaren irismen-erradioaren barruan badago, automatikoki konektatuko da, eta  ikonoa argizatuko da jakinarazpen-barran.

Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: <https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonos-fija>

Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590